

AMVISAK 7,9 milioi euroko finantzaketa lortu du Europako funtsetatik, uraren kudeaketa digitalizatzeko

Teleirakurketa ezarriko du eta komunikazio sistema berrituko du, besteak beste. Digitalizazioari esker, bere energia kontsumoa %10 murriztuko da.

AMVISAK 7,9 milioi euroko finantzaketa lortu du Europako funtsen bidez, **Smart AMVISA 2025** proiektua gauzatzeko, **Arabako hiriburuan uraren ziklo integrala digitalizatzeko eta sozietatearen beraren eraldaketa digitalari ekiteko**. Laguntza horrek AMVISARI eta abonatuari ematen zaien zerbitzuari bultzada handia emateko balio izango du.


Proiektuak hainbat helburu estrategiko jasotzen ditu, hala nola uraren ziklo integralaren eraldaketa digitala, zerbitzuaren kalitatearen eta eraginkortasunaren hobekuntza eta udal enpresaren jarduerak ingurune naturalean duen eraginaren murrizketa, besteak beste. Azpimarratu behar da digitalizazioak aukera emango diola AMVISARI karbono aztarna murrizteko eta energia eraginkortasuna gutxienez %10 hobetzeko; ondorioz, berotegi efektuko gasen isuriak murriztu egingo dira.

Hori garatzeko, hainbat jarduera egingo dira, uraren ziklo osoan azpiegiturak, gaitasunak eta teknologiak indartzea helburu.

Aurrekontua eta gauzatzea

Proiektuaren lehen fasean, aurrekontua **16,8 milioi eurokoa** da, eta, beraz, Europako funtsen ekarpenak behar den inbertsioaren ia erdia estaliko du. Finantzaketaren 7,9 milioi euroak **Uraren Zikloa Digitalizatzeko PERTEaren** deialditik atera dira. Guztira 158 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 29 hartu dira aintzat. AMVISARENA da zazpigarren baloraziorik onena jaso duena, eta finantzaketa handiena lortu dutenen artean bosgarrena.

AMVISAREN eta uraren zikloaren eraldaketa digitalerako plana aho batez onartu zuen Administrazio Kontseiluak. Plana gauzatzeko, kualifikazio tekniko handiko eta oinarri teknologikoko profil profesional berriak sartuko dira.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org

Jasotako datuak kudeatzeko sistema bat, alerta sistema bat eta abonatuarekin komunikatzeko bide berriak zehaztea, bai eta **erakunde osoaren eraldaketa digitalerako plan** bat ere.